

Jarduerak: Jolastu

Helburua da jarduera ludikoen bidez ezagutzak areagotzea, eta, batzuetan, ikasleek berek landu beharko dituzte horiek.



ADINKRAHENE Ikurra:
«Adinkra ikur nagusia da».
Handitasunaren marka.
Karisma eta lidergoa.

2. Jarduera:



Izenburua: “Eta... balitz...”

Kategoria: JOLASTU

Aurkezpena:

1. unitateko lehen jarduera honekin, “istorio bakarrek” Afrikako leku, jende eta kulturei buruz zer transmititu diguten ulertuz hasiko gara. Afrikako kontinenteari buruzko gure ideietan, pertzepzioetan eta sententzioetan eragiten duten estereotipo negatiboz osatutako iruditeria sortu duten istorioak dira. Eta, horregatik, garrantzitsua da barneratutako ideiak, jarrerak eta portaerak berrikustea, hortik aurrera “Afrika birpentsatzen” hasteko.

Helburu didaktikoak:

1. Barneratuta dauzkagun Afrikako kontinenteari buruzko ideiak, pertzepzioak eta sententzioak identifikatu.
2. Afrikari buruzko mendebaldeko estereotipo horiek zalantzan jarri eta eztabaidatu, apurtzen eta beste batzuk eraikitzen hasteko.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.

3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Pertsona, herrialde edo kontinente bati buruzko istorio bat baino entzuten ez badugu, horien zati bat baino ez ulertzeko arriskua dago.
- “Afrikako historia, lehoiak kontatua, eta ez ehiztariak” esaldiaren esanahia.
- Afrikaren historia eta bere kultura, politika, ekonomia eta beste alderdi asko. Mendebaldeko ikuspegitik kontatu eta transmititu izan dizkigute beti.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - “abisua”:

- Ariketaren helburua da ikasleak ohartzea Afrikari buruz eraiki den iruditeriaz.
- Dinamizatzen duen pertsonaren figura funtsezkoa izango da, bera arduratuko baita ikasleei beren gogoetetan laguntzeaz, horrela irakaskuntza-ikaskuntza prozesua erraztuz.

Garapena:

Jolasaren funtsa honako hau da: Afrika hainbat objektuekin identifikatuz,

ikasleak, inkontzienteki, Afrikako kontinentearen iruditeria eta hura osatzen duten estereotipoak ezagutzera iristea.

1. ZEREGINA: ikasle bakoitzari fitxak banatuko zaizkio. Banaka, **“Eta Afrika balitz?”** fitxa betetzeko eskatuko zaie. Esaldiak azkar bete behar dituzte, eta bururatzen zaien lehenengo gauzarekin. Pentsatzeko denbora askorik ez izatea, eta, hartara, erantzunak subkontzientetik lortzen laguntzea da helburua.

2. ZEREGINA: banakako fitxa betetakoan, 5 talde osatuko dira. Taldeak egoki iritzitako irizpideen arabera eratu daitezke, eta ikasleei beren osaera erabakitzeko aukera ematea ere badago.

Ondoren, talde bakoitzean pertsona bat izendatuko da **moderatzaile**, txanda birakari bati jarraituz, erlojuaren orratzen noranzkoan, inor aparte ez uzteko. Pertsona bat edo bi arduratuko dira oharrak hartzeaz, eta banakako erantzunak orri batean idatziko dituzte. Erantzunetakoren bat errepikatzen bada, errepikapenen kopurua jarriko da erantzunaren ondoan.

3. ZEREGINA: talde-lana amaitutakoan, **bateratze-lana** egingo da, talde bakoitzean lortutako emaitzak partekatze eta egituratzeko. Ikasleek, talde bakoitza moderatzearen arduradun, jaso dituzten erantzunak partekatuko dituzte ikaskideekin.

Bitartean, talde bakoitzean oharrak hartzeko ardura dutenek beren taldearen erantzunak idatziko dituzte arbe-

lean edo papelografoan, ikasle guztiek ikus ditzaten.

1. AUKERA: Talde guztiek erantzunak arbelean idatzi eta erantzun guztien irudi osoa izan ondoren, irakasleak eman diren erantzunen inguruan gogoeta egiteko espazio bat irekiko du. Hausnartzen eta eztabaidatzen lagundu dezaketen galdera batzuk honako hauek izan daitezke:

- Zein dira gehien errepikatzen direnak? Zergatik?
- Zein iruditzen zaizkizue deigarriak? Zergatik?

2. AUKERA: erantzunak erakusteko eta, hartara, ikasleek Afrikaz zer iruditeria duten ikusi ahal izateko, doako web-baliabideak erabil daitezke, hala nola: Mural.ly (<https://www.mural.co/>) edo Padlet (<https://padlet.com/>); horien bidez, ikastetxean erraz zabaltzeko moduko horma-irudi digitalak sortu daitezke, sare sozialak eta abar.

Horma-irudi hori amaieran egiten duten beste horma-irudi batekin alderatu daiteke, ikasleek Afrikaz dituzten ideietan, pertzepzioetan eta abarretan izan daitezkeen aldaketak identifikatzeko.

Aurreikusitako iraupena:

- **Jardueraren aurkezpena eta fitxen banaketa:** 10 minutu.
- **1. zeregina:** Fitxak banaka bete: 2 minutu.
- **2. zeregina:** Taldeak antolatu eta fitxa bateratua egin: 20 minutu.
- **3. zeregina:** Taldeen ahozko azalpena: ordubete.

- **3. zeregina (2. aukera):** Horma-irudia prestatzeko lana: 2 ordu (etxean egin beharreko lana, eskola-ordue-tatik kanpo).

*OHARRA: *Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakas-kuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- “Eta Afrika balitz” jardueraren fitxa.
- Idazteko arkatza edo boligrafoa.

- Bateratze-lanerako: arbelak eta klarionak edo papelografoa, post-itak eta koloretako errotuladoreak.

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat ireki-ko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. ERANSKINA: Eta Afrika... Balitz?

1. Afrika animalia bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
2. Afrika janari bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
3. Afrika fruta bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
4. Afrika garraiobide bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
5. Afrika objektu bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
6. Afrika kolore bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
7. Afrika arbola bat edo landare bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
8. Afrika urtaro bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
9. Afrika musika edo musika-tresna bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
10. Afrika emozio bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
11. Afrika hitz bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...

2. Jarduera:



Izenburua: Afrikaren Biodibertsitatea

Kategoria: JOLASTU

Aurkezpena:

3. unitatearen testutik abiatuta, ikasleak Afrikako kontinentearen ezagutzara hurbilduko dira eta ezagutza horretan sakonduko dute, haren kultura, geografia, habitat eta abarren bidez. Jarduera honetan ikusiko dugu Afrika dela planetako biodibertsitate-erreserbarik handiena, eta animalia, landare eta itsas ekosistema ugari dituela.

Helburu didaktikoak:

1. Afrikako eremu klimatiko nagusiak ezagutu.
2. Ikasleak Afrikako biodibertsitatera hurbildu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

2. **DBHko 1. mailako Biologia eta Geologia** (Gaitasun zientifikoa).
3. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrika oso lurralde zabala duen kontinentea da, askotarikoa, eskualde handiak dituena, bata bestetik bere geografiaren, klimaren, kulturaren, hizkuntzen eta abarren arabera bereizitakoak.
- Planetako basoen % 17 dauka, eta basamortu handiena, Sahara.
- Afrikak animalien, landareen eta itsasoaren biodibertsitate aberats eta askotarikoa du, eta horiek klima-aldaketa arintzeko mekanismoak dira.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Arreta eman Afrika kontinente "uniforme" gisa aurkezten duen diskurtso mugatuari.

Garapena:

1. ZEREGINA: Hasteko, irakasleek jardueraren helburuak, garapena eta egin beharreko lanak aurkeztuko dizkiete ikasleei. Ondoren, lauzpabost ikasleko 5 talde osatuko dira. Taldeak irakasleek egokitzen jotzen dituzten irizpideen arabera osatu ahal izango dira, eta ikasleek horien osaketa erabakitzen uztea ere badago.

2. ZEREGINA: Taldeak osatu ondoren, talde bakoitzari honako hauek eman-
go zaizkio:

- 9 animalia-zerrenda. Bost zerrenda emango zaizkie animalia desberdinekin.
- Bilatu behar duten animalia bakoitzaren argazkia duen fitxa.
- Animalia bakoitzari buruz bilatu behar dituzten datuak jasotzen dituen fitxa.

Talde bakoitzak kolore bat izango du (urdina, horia, berdea, morea eta gorria). Ondoren, ikasleek argazki bat eta informazio bat bilatu beharko dute beren zerrendako 9 animalietako bakoitzari buruz. Argazkiak moztu, eta animalia bakoitzari dagokion fitxa osatuko dute haren datuekin.

3. ZEREGINA: 5 taldeek beren zerrendako animalia guztien informazioa, argazkiak eta informazio-fitxak dituztenean, kartoi mehezko horma-irudi batean itsatsiko dira. Horma-irudiaren alde batean, argazki guztiak itsatsiko dira bertikalean, eta horma-irudiaren beste aldean, deskribapen guztiak, horiek ere bertikalean.

Ondoren, txandaka, talde bakoitzak 5 minutu izango ditu animalien argazki kopuru ahalik handiena bakoitza bere deskribapenarekin lotzeko (taldeak egin ez dituen zerrendetatik). Denbora amaituta, behar bezala erlazionatuta dauden argazki eta deskribapenen kopurua kontatuko da. Bikote gehien elkartzen dituen taldeak irabaziko du.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 10 minutu.
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1).

Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta 2. zeregina entregatzeko egun batzuetako epea eman dakieke.

- 3. zeregina: ordubete (saio 1).

OHARRA: **Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- Animalien zerrenda (1. eranskina).
- Animalia bakoitzarentzako datu-fitxa (2. eranskina).
- Klima Afrikan: https://es.wikipedia.org/wiki/Clima_de_%C3%81frica
- Afrikako eremu klimatikoaren mapa: https://es.wikipedia.org/wiki/Clima_de_%C3%81frica#/media/Archivo:Koppen-Geiger_Map_Africa_present.svg
- Afrikako animaliak. Habitata eta Ezaugarriak: <https://animalesde.net/africa-la-historia-no-conocias/>
- Fauna Afrikarra: https://es.wikipedia.org/wiki/Fauna_de_%C3%81frica — <http://www.ikuska.com/Africa/natura/fauna/index.htm>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. ERANSKINA: Animalien zerrendak

1. TALDEA	
1	Elefante-satitsua
2	Tse-tse eulia
3	Dromedarioa edo gamelu arabiarra
4	Balea australa
5	Fakokeroa
6	Jako loroa
7	Milazango erraldoi afrikarra
8	Urde inurrijalea
9	Tarantula Goliat afrikarra

2. TALDEA	
1	Mantofasmatodeoak edo gladiatore afrikarrak
2	Bular liladun txoria
3	Basamortuko trikua
4	Euri afrikarreko igel beltza
5	Elefante afrikarra
6	Ñua
7	Bufalo afrikarra
8	Erribera-untxia
9	Ostruka

3. TALDEA

1	Pinguinoa
2	Zizarea
3	Gepardoa
4	Lehoia
5	Marradun hiena
6	Marrazo zuria
7	Jirafa
8	Lurmturreko itsas txakurra
9	Zebra

4. TALDEA

1	Quelea-quelea
2	Bufoak
3	Hipopotamoa
4	Tximeletak
5	Orixa
6	Mudskippers (Gobidoak)
7	Errinozeroa
8	Lurmuturreko azukre-txoria
9	Fennec azeria edo Basamortuko azeria

5. TALDEA

1	Arrano afrikarra
2	Lemurra
3	Termitak
4	Martin arrantzalea
5	Babuinoa
6	Inpala
7	Gorila
8	Lehoinabarra
9	Katu-arraina

ARGAZKIA

--

2. ERANSKINA: Dateun fitxa

Mota (Ugaztuna, hegaztia, intsektua eta abar):	
Deskribapen morfologikoa:	
Jokabidea: <ul style="list-style-type: none">• Nola antolatzen den• Ehiza eta dieta• Ugalketa eta bizitza-zikloa• Komunkazioa	
Bizi den habitata: basamortua, sabana eta abar.	
Datu bitxia:	

1. Jarduera:



Izenburua: Kontatu ipuin bat

Kategoria: EREIN, JOLASTU

Aurkezpena:

Jarduera honen bidez, Afrikako gizarteetan komunitarioak duen balioa erakutsi nahi da, herri-ipuina irakurriz. Afrikako hainbat eskualde eta kulturatako hiru ipuin proposatzen dira.

Helburu didaktikoak:

1. Mendebaldeko kulturaren ezezagunak diren Afrikako berezko balioak ezagutu.
2. Memoria Afrikan.
3. Hitzaren garrantzia.
4. Ipuinaren eginkizuna eta ipuin-kontalariaren lanbidea.
5. Komunitatearen balioa Afrikako gizarteetan.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Herri-ipuina berebiziko garrantzia du Afrikako gazteen hezkuntzan. Narratzailearen eta bere publikoaren arteko konplizitate- eta lan-kidetza-harremana ezartzen duen arte biza da. Hizkuntza irakasteko eta ikasteko bitartekoa da.
- Pertsonaren dimentsio komunitarioaren garrantzia. Pertsonak izaki bata bestetik desberdinak dira, elkar ezagutzeko gai direnak elkartzearen eta beste pertsona batzuekin bizitzearen bidez.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Ikasgelan arrazializatutako ikasleak baldin baditugu, haien erreakzioei arreta eman.
- Ikasleek izan ditzaketen diskurtso arrazistei arreta eman.

Garapena:

1. **aukera:** ikasleek ipuin afrikar bat aukeratuko dute (iradokitzen diren hiruretatik), eta ikasle batzuek haren zatia irakurri eta eszenifikatuko dituzte ikasgelan. Entzumenezko eta

jakin-minezko giroa sortzen saiatuko gara, hartan narratzaileak arretagune nagusi direla, horretarako haien inguruan leku berezia sortuta.

2. aukera: ikastetxea bisitatuko duen eta ipuin-kontalaritzako saio bat antola dezakeen Afrikako elkarteren batekin harremanetan jarriko da irakasle-taldea. Ondoren, ipuinak iradoki digunari buruzko elkarrizketarako espazio bat irekiko da gelan.

Aurreikusitako iraupena:

- Ordubete.

Laguntzarako materialak:

Boni Ofogoren ipuinak. Espainian bizi den Kamerungo ahozko kontalaria. Esperientzia zabala du ikastetxe, liburutegi, ipuin-jaialdi, enpresa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetan; gaurkotasunik galdu ez duten antzi-

nako istorioekin gozarazi izan du leku horietan.

- <https://youtu.be/oBA6cIRtt2M> Dortoka
- <https://youtu.be/EMPWCkN6bA0> Ahoaren, besoaren eta ilargiaren ipuina
- <https://youtu.be/B8u5q0-WOFY> “Zanga” ehiztari handiena
- <https://youtu.be/BKPgJ6OISlo> Game-luen zaintzailea
- <https://youtu.be/sKljoWLOA4I> Gauzen ordena

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

2. Jarduera:



**Izenburua: “Kondairak dio...”
ipuin-kontakteta kolektiboa**

Kategoria: EREIN, JOLASTU

Aurkezpena:

Unitate honetan Afrikako ahozko kulturara hurbildu gara, Afrikako hainbat eskualde eta kulturatako ipuinen bidez. Jarduera honetan, ikasleak ipuin-kontalari bihurtzen dira egun batez. Zerbait iradokizun egiten dira, ipuina egiten denetik azken eszenaratzeraino lana errazteko.

Helburu didaktikoak:

1. Hitzaren garrantzia.
2. Ipuinaren eta istorio-kontalarien eginkizuna.
3. Komunitarioaren balioa Afrikako gizarteetan.
4. Irakurketa partekatua eta adierazkorra, ipuin eta kontakizun laburrak, kultura desberdinetako mitoak eta elezaharrak entzun, eta literatura-kontakizunaren oinarritzko elementuak eta haien funtzioa ezagutu.
5. Gorputz adierazpena eta komunikazioa. Mezuak transmititu eta emozioak adierazi, taldeka nahiz banaka, dramatizazio- edo dantza-baliabideen bidez (itzal-antzerkia, txotxongiloak, ipuinak, istorioak, txotxongilo biziak,

mimoa, bikoizketa-tailerrak, dantzak eta abar), eta beste irudikapen-jarduera aurreratuago batzuk.

Oinarritzko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarritzko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Euskara eta euskal literatura eta gaztelania eta espainiar literatura** (Gaitasuna komunikazio linguistiko eta literarioan).
2. **Hezkuntza Fisikoa** (Mugimendu-gaitasuna).
3. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrikako gizarteetan, ipuinak hainbat alderdi garrantzitsu biltzen ditu: funtzio ludikoa, funtzio pedagogikoa eta funtzio linguistikoa.
- Hitzaren bidez, Afrikan, kultura, mundua ulertzeko eta harremanak izateko modua transmititzen da.
- Ipuinek alderdi askori heltzeko

- tresna gisa duten ahalmena ezagutu: emozioak, balioak, bizitzara eraman daitezkeen egoerak eta abar.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Ikasgelan arrazializatutako ikasleak baldin baditugu, haien erreakzioei arreta eman.

Garapena:

1. ZEREGINA: Hasteko, irakasleek jardueraren helburuak, garapena eta egin beharreko lanak aurkeztuko dizkiete ikasleei. Ondoren, lauzpabost ikasleko taldeak osatuko dira. Taldeak irakasleek egokitzen jotzen dituzten irizpideen arabera osatu ahal izango dira, eta ikasleei horien osaketa erabakitzen uztea ere badago.

2. ZEREGINA: Taldeak osatu ondoren, talde bakoitzak bere ipuina sortuko du. Hona hemen ikasleentzako zenbait argibide:

Ipuinaren sorrera:

1. Aukeratu gaia eta estiloa. Balioak sustatzen dituen ipuina izan daiteke, edo ikasgai bat duena.
2. Pertsonaiak sortu behar dituzue (hobe asko ez badira).
3. Gogoratu ipuin guztiek izan behar dutela:
 - Gutxi garatutako intriga.
 - Klimaxa: istorioko konplexuena eta biziena dagoen puntua.
 - Amaiera.
4. Zuen publikoarengan pentsatu behar duzue: ez

da gauza bera haurrentzako ipuina, helduentzako ipuina, ikaskideentzako ipuina eta abar. Denon artean erabaki zein izango den zuen publikoa eta non kontaktuko duzuen zuen ipuina.

5. Ipuinaren eskema egin, argi utziz planteamendua, korapiloa eta amaiera. Laburbildu, hiru edo lau lerrotan, atal horietako bakoitzaren edukia.
6. Batzuetan, garrantzi berezia du pertsonaia batek, objektu batek, paisaia batek, egoera batek... Hori deskribatzeko gelditu egin beharko duzue kontaktaren erritmoa. Deskribapen on baten ondorioz, istorio normal bat istorio zirraragarri bihurtu daiteke.
7. Ezinbestekoa da elkarrizketak sartzea. Elkarrizketak izango diren ipuin-zatien zerrenda egin behar duzue.
8. Kontuan hartu beharko duzuen beste elementu bat izango da zuen kontakizunaren denbora.
 - Zer garaitan gertatzen da ipuina? Onena hori kontakizunaren hasieran esatea da.
 - Zenbat denbora igarotzen da gutxi gorabehera ipuinean: egun bat, asteak, hilabeteak, urteak?
9. Aukeratu erakargarriak diren hasiera bat eta bukaera bat. Zuek inspiratzeko, Afrikako ipuinen hastapenak eta amaierak iker ditzakezue.
10. Ipuina, pertsonaiak, agertokia eta abar sortu ondoren, paperak banatuko dituzue zeuen artean.
11. Ondoren, entseguak hasiko dira. Norbaitek grabatzen lagundu diezazueke, aldatu edo hobetu beharreko gauzak egiazta

ditzazuen.

12. Azkenean ikasgelatik kanpo ematea erabaki baduzue, ideia ona izan daiteke emanaldiaren datu guztiak biltzen dituen kartela egitea, zabaltzeko.

3. ZEREGINA:

1. Beharrezko iruditzen bazaizue, zuen jantzi eta eszenografia propioak landu ditzakezue.
2. Ipuina emateko aholku batzuk:
 - Zaindu bolumena, ondo entzuteko.
 - Ez kokatu hurbilegi edo urrunegi, keinuak eta intonazio-aldaketak ondo antzemateko.
 - Puntuazioaren eta intonazioaren araberako eten egokiak egin, harri-dura- eta galdera-markei arreta eman.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 30 minutu.
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **3. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta 3. zeregina entregatzeko astebete eman dakieke.
- **4. zeregina:** saio 1 edo 2.

OHARRA: Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren

ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.

Laguntzarako materialak:

- Ipuin afrikar tradizionala. Ustiatu gabeko meatze hori! https://www.um.es/tonosdigital/znum26/secciones/estudios-15-koffi_cuento.htm
- Afrika. Ipuinak eta kondairak Boniofogoren eskutik. <http://boniofogo.com/>
- Hemengo eta hango mitoak: Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan irakurketa kritikoa sustatzeko material didaktikoa. <https://sites.google.com/view/mitosdeaquiydealla/p%C3%Algina-principal>
- Ahozko tradizio afrikarra: ipuin afrikarrak. <https://sites.google.com/view/mitosdeaquiydealla/cuentos-africanos>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

2. Jarduera:



Izenburua: Aulki-jokoa.

Kategoria: JOLASTU

Aurkezpena:

Jarduera honen bidez, ikasleek gogoeta egingo dute egungo garapen-ereduari eta horrek eragin dituen gizarte- eta ingurumen-desorekei buruz, eta jabetuko dira garapen jasangarriko eta bidezko eredu bat ezartzeko, justizia globalerako bokazioa izango duena, nazioarteko harremanetan egiturazko aldaketak egin beharko liratekeela.

Helburu didaktikoak:

1. Munduko desberdintasunen arrazoiak eta ondorioak agerian utzi: herrialde pobreak edo pobretuak? Estereotipoak eta aurreiritziak.
2. Etorkinen errealitatea eta egoera ezagutu, Giza Eskubideen eta Geroaren ikuspegitik (Migratzea, "migrazio behartuak", igarotzea).
3. Herritartasunaren eta eragin-eremuen kontzeptuari buruz hausnartu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak.
3. Ekonomia.

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Gaur egun ezarritako garapen ekonomikoaren ereduak neokolonialismoa erabiltzen jarraitzen du eta Afrikaren garapena baldintzatzen du.
- Neokolonialismo horren ondorioz, hondatzen ari dira baliabide naturalen ustiapen iraunkorren oinarritutako Afrikako ekonomia tradizionalak, eta ingurumenaren arloko narriadura ere eragiten ari da.

Garapena:

Lehenik, kontinenteak zein diren azalduko da, non dauden kokatuta eta mapak gelako paretetan banatuko dira. Ondoren, taldeari azalduko zaio munduko populazioaren banaketa irudikatu behar dutela, gela mundua izango dela irudikatuz; eta taldea, berriz, munduaren populazio osoa, parte-hartzaile bakoitzak X milioi biztanle ordezkatzuz (1. eranskina).

Parte-hartzaileak gelan banatu beharko dira, kontinenteetako mapen azpian bilduta, munduko populazioaren banaketa ahalik eta modurik zehatzenean irudikatzeko. Taldea egonkortu ondoren, jolasa

zuzentzen duen pertsonak benetako zifrak emango ditu, eta, behar izanez gero, sinbolizazioa zuzenduko du. Parte-hartzaile bakoitzak eranskailu bat jasoko du, dagokion kontinentearen izenarekin.

Kontinenteak eta zifrak banatu ondoren, aulkiek sinbolizatzen duten munduko aberastasuna landuko da. Dinamizatzaileak adieraziko du aulki bakoitzak X milioi dolar ordezkatzeko dituela (2. eranskina). Taldeak maparen azpian banatuko ditu aulkiak. Bukatutakoan, benetako zifrak eman, eta sinbolizazioa zuzenduko da.

Jarduera amaitzeko, kontinente bakoitzeko biztanleek dagozkien aulki guztiak okupatu beharko dituzte. Aulki bakar bat ere ezin da hutsik geratu eta inor ezin da lurrian geratu, aulkirik gabe. Aulki batera igo behar da nola edo hala. Barrea ziurtatuta dago, adibidez, amerikarrak aulki hutsetan etzanda daudela ikusitakoan, asiarren ondoan, horiek dituzten aulki urrien gainean pilatuta jarriko baitira.

Galdera lagungarriak jarduerak dirauen bitarteko analisirako:

- Nola sentitzen zarete Asian zaudeten pertsonak?
- Eta Europakoak?
- Zer sentitzen duzue Europakoek eta Ipar Amerikakoek, ikusirik Afrikakoak, Asiakoak... nola dauden?
- Zer sentitzen duzue Afrikakoek eta Asiakoek, ikusirik Europakoak eta Amerikakoak zein eroso dauden?
- Uste duzue Europan eta Ipar Ame-

rikan bizi diren pertsona guztiak hain ondo bizi direla edo badaude ongizate hori ez duten pertsonak?

- Afrikan, Asian eta Hego Amerikan biztanle guztiak pobrezian bizi direla uste duzue?
- Zergatik uste duzue daudela desberdintasun horiek, herrialde edo kontinente berean bizi izanda?
- Taldeko pertsona gehienak, bai eta jolasa dinamizatzen dutenak ere, seguru asko Europakoak gara; irudikapenean bezain eroso bizi gare-lako irudipena dugu edo gauza asko falta zaizkigula uste dugu?
- Kexatzen bagara eta gauzak falta zaizkigula uste badugu, nola sentituko dira, zuen ustez, gu baino okerrago bizi diren pertsonak? Zer ondorio ditu egoera horrek?
- Bazenekiten alde handi horiek zeudela?

Aurreikusitako iraupena:

- Ordu bete eta 2 ordu artean.

Laguntzarako materialak:

- Parte-hartzaile adina aulki.
- Afrikako, Ipar Amerikako, Hego Amerikako, Asiako eta Europako mapak.
- Mapamundi bat.
- Kontinenteen izenak dituzten eranskailuak.

Gogoeta egiteko eta jarduera ixteko kontzeptuak eta galderak:

1. Herrialdeak pobreak edo pobretuak dira? Horrek esan nahi

1. du aberastasunik ez dagoela? Eta orduan, zergatik daude egoera horretan? Garapen-ereduari buruz hausnartuko dugu.
2. Desberdintasun-egoera orokorra ikusi ondoren, hau galdetuko diegu:
3. Zer arrazoi ditu pertsona batek migrazio-prozesu bat egiteko? (Iana, egoera ekonomikoa hobetzea, osasuna, maitasuna, ikasketak, aisialdia, familia...).
4. Eta zer herrialde aukeratzen duen, zertan jartzen duen arreta: hizkuntza, hurbiltasuna, familia, lege-alderdiak...
5. Eta, une horretan, herrialdea edo kontinentea aldatu nahi duenari hori egiteko aukera emango diogu.
6. Ez da hain bide erraza izango, zailtasunak izango dituzte (dinamizatzaileak esku hartuko du hainbat egoera sortzeko), eta kontinente edo herrialde bakoitzak eztabaidatu beharko du muga pasatzen utzi edo mugan geldiarazi; erantzuleak gara?
7. Giza Eskubideak betetzen direla uste duzue? Noiz hasten da bat herritartzat hartua izaten?
8. Zer gertatzen da pertsona guztien arteko batzuk bat baino ikusten ez ditugunean? Historia bakarraren arriskuaz hitz egin.
9. Amaitzeko, eta gure inguruneetan izan dezakegun eragina ulertzeko, hauxe galdetuko diegu: Zer egin dezakegu guk hemendik?

1. eranskina: Parte-hartzaileen banaketa, munduko populazioaren banaketaren arabera

MUNDUKO ABERASTASUNAREN BANAKETA						
Parte-hartzaile kopurua	AFRIKA	ASIA	IPAR AMERIKA	HEGO AMERIKA	EUROPA	Pertsona lek ordezkatzen du... (milioi biztanle)
12	2	7	1	1	1	569
13	2	8	1	1	1	525
14	2	9	1	1	1	488
15	2	9	1	1	2	455
16	2	10	1	1	2	427
17	2	10	1	2	2	402
18	3	11	1	2	2	379
19	3	12	1	2	2	359
20	3	12	1	2	2	341
21	3	13	1	2	2	325
22	3	13	1	2	2	310
23	3	14	1	2	2	297
24	3	15	1	2	3	284
25	4	15	1	2	3	273
26	4	16	1	2	3	263
27	4	16	1	2	3	253
28	4	17	1	3	3	244
29	4	18	1	3	3	235
30	4	18	2	3	3	228
31	4	19	2	3	3	220
32	5	19	2	3	3	213
33	5	20	2	3	3	207
34	5	21	2	3	3	201
35	5	21	2	3	4	195

2. eranskina: Aulkien banaketa, munduko aberastasun ekonomikoaren banaketaren arabera

MUNDUKO ABERASTASUNAREN BANAKETA						
Parte-hartzaile kopurua	AFRIKA	ASIA	IPAR AMERIKA	HEGO AMERIKA	EUROPA	Pertsona lek ordezkatzeko du... (milioi biztanle)
12	1	5	3	1	3	5.932
13	1	5	3	1	3	5.475
14	1	6	3	1	3	5.084
15	1	6	4	1	4	4.745
16	1	6	4	1	4	4.449
17	1	7	4	1	4	4.187
18	1	7	4	1	4	3.954
19	1	8	5	1	5	3.746
20	1	8	5	1	5	3.559
21	1	8	5	1	5	3.389
22	1	9	5	1	5	3.235
23	1	9	6	1	6	3.095
24	1	10	6	2	6	2.965
25	1	10	6	2	6	2.847
26	1	10	6	2	6	2.738
27	1	11	7	2	7	2.636
28	1	11	7	2	7	2.542
29	1	12	7	2	7	2.454
30	1	12	7	2	7	2.373
31	1	12	8	2	8	2.287
32	1	13	8	2	8	2.203
33	1	13	8	2	8	2.118
34	1	14	8	2	8	2.034
35	1	14	9	3	9	1.949

3. Jarduera:



Izenburua: Markoen jolasa

Kategoria: JOLASTU

Aurkezpena:

Jarduera hau 5. unitateko 1. jarduerari lotuta dago, eta herrialdeen eta kontinenteen arteko desberdintasun sozioekonomikoaren egoera azpimarratzen du.

Jarduera honen eta proposatzen duen jolasaren bidez, ikasleek herrialdeen arteko harremanak irudikatuko dituzte: merkataritza eta produktuen trukea.

Jolasak erakutsi nahi du nola, herrialde kolonizatzaileek ezarritako Afrikako ekonomien dibertsifikazio faltaren ondorioz, Afrika ahultasun ekonomikoko egoeran jarri den, balio erantsi txikiko lehen mailako produktu gutxi ekoizten dituelako eta produktu manufakturuak erosten dituelako, askoz ere garestiagoak.

Merkataritza aberastasun-iturri da herrialdeentzat, eta aukera ekonomikoak sortzeko eta pobrezian dauden milioika pertsonarentzat bizi-kalitatea hobetzeko ahalmena du. Hala ere, potentzial hori ezin da garatu herrialde aberatsek truke horiek modu bidezkoagoan egiten ez dituzten bitartean.

Helburu didaktikoak:

1. Aberastutako herrialde industrializatuen eta herrialde pobretuen arteko merkataritza-trukeen sistema ulertarazi.
2. Erakutsi Afrikan oinarri nagusitzat lehengaiak eraztea (batez ere, nekazaritzakoak eta baliabide mineralak) duen garapen-eredu bat ezartzeak, batez ere Europako potentzien beharrak betetzeko, desoreka eta desberdintasun handiak eragin dituela.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Ekonomia.**

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrika garatzeko arazoak, neurri handi batean, nazioarteko ordenaren eta garapen-eredu osoaren ondorio dira.
- Justizia globalerako bokazioa duen eredu jasangarri eta bidezkoa lortzeko, egiturazko aldaketak egin beharko dira nazioarteko merkataritza-harremanetan.

Garapena:

Lehenik, adierazi behar da ez dela komeni ikasleei zehaztea zer izango den esperientzia, ezta zein gai eztabaidatuko den ere, parte-hartzaileak ez baldintzatzeko, eta, horrez gain, jakin-mina eragiten duen intrigazko osagai bat eransteko.

Parte-hartzaileak kopuru bereko lau taldetan banatuko ditugu. Esango ez zaien arren, lau herrialde ordezkatu dituzte. Parte-hartzaileen eta materialaren banaketa honako hau da: 1. eta 2. herrialdeek herrialde aberastuen pribilegioak izango dituzte, beste biek baino teknologia gehiago jasoko baitute; eta 3. eta 4. taldeak herrialde pobreetako ordezkariak izango dira, teknologia urrikoak eta lehengai ugari dituztenak.

Lau taldeei kartoi mehezko markoak egin behar dituztela adieraziko zaie. Talde bakoitzak material kopuru desberdina jasoko duenez, beraien artean negoziatu ahal izango dute, baina soilik ordezkarien bidez (talde bakoitzeko bana).

Dinamizazioaz arduratzen den pertsonak aldeztatik adostutako seinale bat adierazitakoan, lau taldeek bukatu egingo dute markoen ekoizpen-prozesua. Ondo amaitutako marko gehiago egitea lortzen duen taldeak irabaziko du.

Dinamikaren hasieran ematen den materiala baino ezin da erabili.

Aurreikusitako iraupena:

- Ordubate.

Laguntzarako materialak:

- Lau mahai handi.
- Parte-hartzaile adina aulki.
- 6 erregela.
- 6 arkatz.
- 4 guraize.
- Koloretako eranskailuak.
- Folio tamainako 18 kartoi mehe.
- Itsasgarria.

Gogoetarako kontzeptuak eta galderak:

- Talde bakoitzari eskatuko zaio azaltzeko nola lan egin duten egin dituzten markoak lortzeko.
- Taldeei eskatuko diegu azaltzeko non aurkitu dituzten materiala trukatzeko zailtasunak eta zein material izan den zailagoa eta zein errazagoa trukatzeko.
- Marko gehiago lortu dituzten taldeak “abantaila” batekin abiatu dira?
- Eta zein izan dira gutxiago lortu dutenen desabantailak?
- Badakizue zertan jolastu garen?
- Jolas hau bizitza errealeko egoeraren batekin identifika dezakezue?

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

3. Jarduera:



Izenburua: Dantzak
ahaldundu egiten du

Kategoria: JOLASTU

Aurkezpena:

Dantza, modu autonomoan edo taldeka, sormenez eta adierazkortasunez, norberaren buruarekin eta gainerako pertsonekin nahiz ingurune fisikoarekin eta kulturalarekin zerikusia duten esparru motorreko egoerei aurre egiteko modu bat da, eta hala landu eta ezagutu nahi da jarduera honetan. Hala, Quinndy Akeju ezagutuko dugu, eta hark, ikasgelan erakutsiko diren bideo batzuen bidez, azalduko digu dantzak zer garrantzia izan duen eta izaten jarraitzen duen gorputzarekin mezu espiritualak, erresistentziakoak eta kultura desberdinekin konektatzeko mezuak adierazteko bitarteko gisa.

Helburu didaktikoak:

1. Eginkizunak eta bizitzeko moduak erakusten dituzten elementu kulturalak bereganatzen dituen dantzaren jakinduria historikoa ezagutu.
2. Dantza gorputz-mugimenduen bidez askatasun-adierazpen gisa sentitu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komu-

- nikaziorako gaitasuna.
2. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa)
2. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa)

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Dantza ez da soilik pausoak; aitzitik, dantzaren bidez, emakumeak aske senti daitezke, sentimenduak adierazi, eta beste emakume batzuekin lotu.

Garapena:

1. ZEREGINA: ikasgelan, Quinndy Akejuren bi bideo erakutsiko dira (aurkezpen-pilula eta dantza-lagin laburra), taldeka iruzkinak egiteko. Eta, ondoren, afrosaiο baten bideoa ikusiko da, ideiak eta dantza-urratsak har ditzaten.

2. ZEREGINA: ikasleak bi taldetan banatuko dira, eta azalduko zaie, Quinndyren dantzak erreferentziatzat hartuta, beren dantza sortu beharko dutela, gero beste taldearen aurrean irudikatzeke.

Garrantzitsua da ondo pentsatzea zein mezu helarazi nahi duten beraien dantzaren bidez, talde bakoitzak bestearena asmatzea izango baita helburua.

**OHARRA: garrantzitsua da ikasleen ahalegina indartzea, gorputz*

bakoitzak modu berezi batean transmititzen baititu bere mezua eta dantza. Helburua ez da dantzatzen ikastea, baizik eta dantza mezuak transmititzeko eta, batez ere, emakumeak ahalduntzeko ahalmen gisa erabiltzen ikastea.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 15 minutu
- **2. zeregina:** 45 minutu

*OHARRA: *Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- Quinddy Akejuren aurkezpen-pilula: <https://youtu.be/-Qc7TnBICUo>
- Quinddyren dantza-lagin laburra, Bilbon: <https://youtu.be/FiJpMBuuRIO>
- Afrosaiio-taldekako koreografiaren bideoa: <https://www.instagram.com/reel/CVkurJtgQQo/?igshid=YmMyM-TA2M2Y=>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

3. Jarduera:



Izenburua: Nire taldean zaude?

Kategoria: JOLASTU, TXIRIKORDATU

Aurkezpena:

Jarduera honen bidez, ikasleak hobeto jabetuko dira inguruan ditugun pertsonak aukeratzeko orduan arreta gehien jartzen diegun alderdiez. Normalean, modu inkontziente eta automatizatuan egiten dugu hori, eta, beraz, gure ingurune sozialeko kide izan daitezzen nahi dugun pertsonengana hurbiltzeko erabiltzen ditugun irizpideak birpentsatzera bultzatzeak pentsamendu kritikoa eta ikaskuntza-prozesua sustatuko ditu, adimena ireki eta aukera berriak ematen ikasteko.

Helburu didaktikoak:

1. Berdintasunak edo desberdintasunak besteengana hurbiltzeko orduan duen eragina eta horretarako ditugun irizpideak ezagutu.
2. Talde batean sartu edo kanpoan geratu ahala nola sentitzen garen esperimintatu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
2. Elkarbizitzarako gaitasuna

3. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Balio etikoak. (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Pertsona guztiok talde sozialetakoak gara (familia, lagunak, ikastetxea, kirol-kluba eta abar), batzuk eman egiten dizkigute eta beste batzuk aukeratu egiten ditugu. Talde bateko kide izatea garrantzitsua da gure garapen pertsonalerako eta sozialerako.
- Normalean, pertsonak haiekin lotzen gaituenaren arabera aukeratu ditugu; hori da giza harremanen alderdi ona, hainbat taldetakoak izan gaitetzke garena izateari utzi gabe.
- Jokoan kanpoko elementu bat jartzeak definitzen du, kasu honetan, talde bateko kide izatea; azken batean, beharbada taldean egoteko garrantzitsuak ez diren alderdiengatik.
- Pertsona batzuek ez gara hurbiltzen, aurreiritziengatik edo aurrez pentsatutako ideiekin. Pertsona guztiei aukera eman behar diegu, ezagunak izateko eta elkar ezagutzeko, eta zein taldetakoak izan daitezkeen aukeratzeko.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Bakarrik senti daitezkeen pertsonen eta haien erreakzioei arreta jartzea.

- Alderdi fisikoengatik, jantziengatik, jarduteko moduengatik eta abarreatatik izan daitezkeen diskurtso estereotipatuak eta/edo aurreiritziak identifikatzea, beste pertsona batzuk gutxiestea eta diskriminatzea dakarten rol eta alderdiak barne.

Garapena:

Parte-hartzaileak zirkuluan jarriko dira, eta begiak ixteko eskatuko zaie. Jolasa zuzentzen duenak koloretako eranskailu bat jarriko du zirkuluko pertsona bakoitzaren aurrean, eta ez die kolore bera esleituko inguruko parte-hartzaileei. Eranskailuak hainbat koloretakoak dira, baina norbaitek kolore bateko eranskailua izango du, ikasgelako inork ez duena.

Garrantzitsua da argitzea zati hau amaitu baino lehen ezin direla begiak ireki, eta, hori eginez gero, egin duena jokotik kanpo geratuko dela.

Ondoren, agindu hau emango zaie: “Orain, ireki ditzakezue begiak, eta, **HITZ BAKAR BAT ERE EGIN GABE, espazioan argi definitutako taldeak osatu behar dituzue**”.

Taldeak antolatu ondoren, parte-hartzaileak, monitoreak barne, berriz ere zirkuluan eseriko dira, eta talde bakoitza osatzen duten pertsonak gertu egongo dira, azterketa egiten hasteko. Hona hemen horretarako lagungarri gerta dakizkigukeen zenbait galdera:

- Zein izan da taldeak osatzeko irizpidea?
- Oso ohikoa al da taldeak kolore

beraren arabera osatzea? Ez al dago beste irizpiderik, adibidez, ostadarra osatzea?

- Zergatik hurbiltzen gara gure antzik handiena duenarengana?
- Zer pentsatu eta sentitu dute talderik gabe geratu diren pertsonak?
- Zer pentsatu dute besteek haiek ikustean? Konturatu al dira?
- Beste pertsonen iritziak eraginik izan du talde batengana edo bestearengana hurbiltzeko?
- Taldea libreki aukeratu bazenute, pertsona horiek berek osatuko lukete?

Aurreikusitako iraupena:

- Ordubete.

*OHARRA: *Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Laneari ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakas-kuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- Hainbat koloretako itsasgarriak.

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

